

## **BAKEA**

**Bakea zer den, zer ez den,  
hortantxe dago gakoa:  
Bakea zer den, zer ez den.  
Bakea on bat da, beti  
arduratsu zaintzekoa.**

**Bakea beti da on bat  
erreparoz lantzekoa,  
bakea beti da on bat  
lortu orduko prestatzen  
jarraitu beharrekoa.**

**Bakea ez da geldia,  
bakea ez da geldoa,  
bakea ez da nagia.  
Bakea malkarrak leunduz,  
sakanak zelaituz doa.**

**Aldian aldiko lana  
eskatzen digu bakeak,  
aldian aldiko lana.  
Bakeak problemak ditu:  
eztabaida ta txokeak.**

**Bidea lez da bakea:  
ibiliz egitekoa,  
zeregin etengabea.  
Geure martxak markatzen du  
bakearen erritmoa.**

**Bakea, den eta ez den  
on bat da martxan doana.  
Bakea martxak du zertzen:  
trabak bideratu ahala  
sortzen da eta gauzatzen.**

**Bakearen gorabeheran  
hurkoa da arazoa,  
gutxitan hurragokoa;  
baina norberagan dago,  
sarri askotan, gakoa.**

**Bakea garestia da,  
izena dauka merkea;  
bakea garestia da.  
Txit zaila ta kontuzkoa:  
justizia da bakea.**

**Bitoriano Gandiaga,  
Arantzazuko poeta frantziskotarra.**

## **LA PAIX**

Ce qu'est la paix, ce qu'elle n'est pas,  
c'est bien là la clé:  
ce qu'est la paix, ce qu'elle n'est pas.  
La Paix est un bien qu'il convient toujours  
de traiter avec égard.

La paix est toujours un bien  
qu'il convient de cultiver assidûment,  
la paix est toujours un bien  
qu'il faut continuer de préparer  
dès qu'elle est acquise.

La paix n'est pas immobile,  
la paix n'est pas inerte,  
la paix n'est pas oisive.  
La paix nivelle les bosses,  
elle comble les ravins.

La paix requiert le travail  
propre de chaque moment,  
le travail de chaque moment.  
La paix comporte des difficultés:  
le débat et la confrontation.

La paix est un chemin:  
à tracer en marchant,  
une tâche permanente.  
C'est notre marche qui fixe  
le rythme de la paix.

La paix qui est et qui n'est pas  
est un bien en marche.  
C'est la marche qui façonne la paix:  
c'est au fil des obstacles  
qu'elle naît et prend corps.

Dans les fluctuations de la paix  
c'est le proche qui pose problème,  
peu souvent celui qui est éloigné;  
mais c'est en chacun que se trouve,  
très souvent, la clé.

La paix est onéreuse,  
seul son nom est bon marché;  
la paix est onéreuse.  
Très compliquée et essentielle:  
c'est la justice qui est la paix.

Bitoriano Gandiaga,  
poète franciscain d'Arantzazu.  
*Traduit du basque par Peio Ospital*